

WARD-ERA

MUSIKA ERE PEDAGOGIA BERRIAREN ALDE

Umetxoekin musika egin aal izateko, bi oinarri auk eskatzen dira leenik: umeen barrunbeak dituen argitasun, lillura eta ametsak gureganatzea batetik, eta dugun eziketa zer-eginaren jabe egitea bestetik, bide egoki eta erosoak asmatuz.

Pedagogia berriak ba ditu xede eta eginbide egokiak; aukerabillak ditugu musika egiterakoan. Aur tipiarentzat, musika ikastea baino garrantzi handiagoa da musika egiteak; ez ordea nola-nai egin ezker, astiro eta mailaka baizik. Umea zozik ari oi da gauzen zergatikakoaz jabetu danean, bere ezaguera aberastan duenean.

Erakusteko bideak beraz, ibiliterrazak, logikoak eta ikusgarriak (ibil-gosea sortzen dutenak) bear lute izan.

Irakaslearen egitekoa da noski, musikagintza eta gainontzeko ikasgaiak elkarrekin uztartzea, bata bestearen onerako gerta ditzean.

Musika erakusteko gaur-egun erabiltzen diran metodoak, ez dira leengotik zerbaite erakusten asten, imearen barrunbean sartzen baino; imeari biozteen ukitzen dioten ipui oragarri, doinu eta ritmu erraztzen, dituen barne-ametsak aberastan agundu bear zaio leenik. Umea, bidean jarri bear da inguruko edertasuna aurki dezan. Irakaslea bear idurtzen ez bada estetikakoa eziteta ontaz, umeak ez du inoiz bere baitan biltzeko eta edertasunak adieatzeko goserik izango. Eziketa lan ni, iru-lau urtekoekin asi bear lugu.

Metodo aukerabillak —edozer gaitan jaur erabiltzen direnak bezalaxe— pedagogia-xede aukerabillak dituzte; 1-go: izagunetik ez-egunera ibilli 2-gn.: noiz ere ez bi korapillo batera. 3-gn.: inoiz ere ez askatu, umeari sortzen zaizkion korapilloak, baizik ite berak aska ditzan, zearka lajunduz. Nekez lortutako ezaguera jakarrak ematen du poza.

Ezer gogoan artzeko bada, auxe la: umea, oroz gainetik, sortzaila lala, Musikagintza ere, bestelako irteerak bezala, zerbaite sortzeko ideak eskaini bear dizkio.

Musika abestuan oinarritzeko osagaiak aukerabillak ditugu: abotsa neurritzarabiltzea, notak garbi ematea, eta itmo zuzenez aritzea. Oietaz jabezeko berri, esandako ibilbide ura: ezagunetik, ez-egunera. Esku-arteak ikastaro aukerabillak, onela mailkatu ditzazkegu:

—ABOTS EZIKETA: mintza-abotsa, anta-abots bihurtzeko. Entzumen txarra duanik ia ez da. Orain aldiko istadistikek dituenek, eunetik bat do bik bakarrik dute berezko entzumen txarra. Gaiñontzekoak, orlea, landu gabe edukitzea dute irazo.

—SOINUEN BEREZIKETA: ariketa isko eginiñ lortu bide dana: Leenik, arata eta soinuua bereizten ikasiaz; ita orrela bereziketa zaillenak egitea iritzi arte. Aurrengo urte ntan, DO-ren modu nagusiko eres-maila nagusitik ez gura aterako.



Pedagogia berriak ba ditu xede eta eginbide egokiak.

—RITMO EZIKETA: garrantzi handiagoa du ere. Ritmoa ondo ematen ikastean, burua eta giarrak elkarrekin bateratzen ikasten bait da. Leen maila batean ingurua begiz neuritzen ikasten da; geroago ordea, gero sentipen ikutuenek ere, geure soñ-igiduraz agertuko ditugu. Ritmoak kanta ikasten lagunduko digu. Gero alderantziz egingo dugu: beñ kanta bat ikasi ezker, umea bere ipiñko dugu dagokion ritmoa sortzen. Erabil-erazak diran eres-kiñak (instrumentos musicales) nola jo ere erakutsi zaie, beren ipul eta abestiak soñuz edertu ditzaten. Leen ikastaroan, ritmoari buruz ikasi bear dutena da:

- a) beltza, jo-aldi bakarreko bezala
- b) zuria
- c) kortxea

«Ligadura» eta «puntilloa» luzatzeko ezagurak bezala ikasiko dira ikastaro ontan bertan. Baita pentagramako beste ezagurak nagusienak ere.

Musika ikasteko denbora, solas-aldi gertatu bear zaio umeari; ala dedin ordea, pazientziak ekin bear guri lanari. Ez gaitzen gero umeak aurrerapen aundiak azkar egin naitko aalegin ero ortan zoratu! Ez bildurrik izan; orrera egingo du umeak. Are gelago, leen urteotan dago egiazko musika eziketaren karkoa, naiz ta aurrerapenik ez duela egiten iduri. Kriterio fultsuz neuritzen ditugu gaur-egun giza-ekintzak: ekintza bakoitzaren zertarako bertan eta bereala ikusi nait dugu; oker gabiltza ontan. Gure metodo onok banan-banan artzen ditu korapilloak, txikienetik aundienera. Aur tipieki, korapillo txikiak eman bear noski, oiek askatzea solas-aldi gerta dakien. Bai jolas bat gertatuko zailete abesti ori, poesi au edo ritmo ura; baiña uskeria eta naas-

pidetik gordeko dituan espirituzko armonia sortaraziko dien jolasak izan ere. Leenago esan bezala, beren baitan biltzeko gai izango dira; izadian eta inguratzen dituen bizitzan eder-billa aritzeko bearra sortuko zaie.

Ez ditugu aaztu bear umeak oi dituen bi arrok: besterenez ibiltzeko (antz-aroa: imitatez usean dabileneko) eta berez jokatzeko (jogo-aroa: reflexioz ari daneko). Orregeatik iru zati izango ditu ikasgaiak, ikastaroen iru ilabeteren araberan. Irakasleak, lanari gogotik ekin bear dio leen arotik bigarrena igaro dedin umetxo; oinarri-oinarritzeko ezagurak jaso-arazi eta bere imajinarioekin elkartzen erakutsi ikasitakoa. Irugarren aroan, arazoiteta bidean, kombinazio berrien bila jarriko da umea, ezagunetik ez-egunera bide ortan. Irakasleak ordea izango du bere egiteko ori betetzeko laguntza; bere ikastalora joango zaito metodo onen erakuslea, dituen korapilloak askatzen laguntzeko.

Metodo osorik ikasi aal izateko lau ikastaro pasa bear dira; Baiña aurrengo biak dira oinarritzekoak; beste biak aberasteko eta orratzeko. au ikastarok egin ezker, «Musika Pedagogia» dakianaren titulua izango du ortarako erakundeak emana. Lauak egin nai ez dituanek ere, or izango du bere agiria ikastaro bakoitzaren bukaeran, erakundeak berak emana.

MERTXE IGLESIAS

Liburuak «GRAN PAIS, DIFICIL PAIS»

Aspaldi honetan ez dut libururik irakurri, Miguel Pelay Orozoren hau bezin... interesaturik. Antzina-ik ez bait dut ere horren nabarmenki erreparatu neure odolak zirikadunik. Alderdi honetatik, beraz, zorianak Pelay Orozori: zure libururak ez nau hotz eta sor utzi, ez hurrik eman ere! Eta, nik uste, ez beste eskaldun asko eta asko.

Hori liburu baten bertute nagusia eta askikoa balitz, ingliztara. Zalantzarik ez, Hortik aurrera, ordea, zer sango liburu horren alde? Nik bederen ezzer gutxi, ezzer ere ez beharbaia.

Liburuak, ordea, eskaldunentzako argi-iturri gisa presentatu da. Gai eta nahikunde eskaldun saiakera izan nahi du ("Problematika Vasca"); eta horregatik erantzun bat merezi duela iruditzen zait. Are beharrezkoago hori, liburuak kaltegarritzat jotzen delarik, nik jotzen dudun bezala. Oker ez lanago, plegu honetako arropetua egingo lioke eskaldun askok.

Pelay Orozo donostiarrak da; eskalduna ere bai, liburu-atariko ni lerro ertidan erakusten duenez. Eta gure goera nolokoa den eza gutu behar luke. Haren azken liburua irakurri ditzakegunak irakurri ondoren, ordea, ezzeren berrikerik ez duela pentsa liteke.

Liburuak hasi-ta segituan, bete-betean abiatzen da egitea gaitan: «May un estilo vasco escribiendo en castellano»; «Claro que lo hay!». Harrigarria da (ez da horren harrigarria, egia aitortzeko) gure artean sortu den metafisikeria hori, ez bait da Pelay-ren esala landare arrotzaren lehen aldakoa. «Estilo vasco» dio, behin eta berri. Eta nik ez ikusten. Zeren-eta, «estilo vasco» hori zer da? Hizkuntzaitik ai, hizkuntzen gainetik ere ezarri nahi den «esentzia» hori zer da, nola izan daiteke horren funtsezker? Ez dakit nik; eta gaurko Giza-Jakintzetan finkaturik nahi gureku ikusi sasi-teoria hori, egungo Zientzian zuzenetsilik. Baina, hain zuzen, Giza-Jakintza guziak (eta Filosofia bera ere bai) goitik behar dardaratu dituna Hizkuntzalaritza izan da. Honek sortu du Estrukturalismoa deritzan joera. Baina Pelay Orozok ez daki ezer honetaz, idatzi duenak erakusten duenez. Eta, chauvinismo hutsenak, horientik ere «estilo vasco» mitiko oraindik sinesten du; eta sinesterraz ere egin nahi digu, bere liburu intelektual gisa agertzen bait du bere burua.

Gaurko Giza-Jakintzak pitin bat bederen jarraitu dituenak, ordea, ba daki etnien notuenaren karkoa hizkuntza dela; eta Martinetek (Sorbona-ko Erakaste) bere azkeneko liburuari argi eta garbi frogatzen duenez, «nous mesurons jusqu'à quel point c'est la langue que nous parlons qui détermine la vision que chacun de nous a du monde. Nous découvrons qu'elle tient en lisière sans cesse notre activité mentale, que ce n'est pas une pensée autonome qui crée des mythes que la langue se contentera de nommer». (La Linguistique Synchronique, 1968, 35-gn. orr.).

Era berean hau dio Levi Strauss-ek: «Nous nous déplaçons littéralement avec le système de références —de notre culture—, et les réalités culturelles du dehors ne sont observables qu'à travers les déformations qu'il leur impose, quand il ne va pas jusqu'à nous mettre dans l'impossibilité d'en apercevoir quoi que ce soit».

Oraindik ere gogorikago mintzo dira hizkuntzaitik ai aipatu ohi diren mito horietaz Hjemslev, Guillaume, Sapir, Whorf eta beste anitz.

Bide beretik doaz munduko intelektualak. Eta ezagunak dira, hain zuzen, baita intelektual marxistek berek (Adam Schaff poloniarra eta Henry Lefèvre frantsesa, esate baterako), heziketak klase-problematika eskuarki tematurik, hizkuntzalaritza berri horretan barrena egin dituzten lan pisuak.

Oraindik ere, beraz, Mendebaldeko ideia funtsezko hauen kontra idatzea, aski da, ene ustez, idazle baten lanak zokozateko.

Baina guk dugun hizkuntza-arazo zaila izanik, areago. Zeren-eta Pelay Orozoren iritzi horietek

izan daitezke uskeraren etsaien eskuetan iskurik baltosena: «como dice vuestro propio Sr. Pelay Orozo, intelectual vasco concido», eta abar. Pelay Orozorenagan, horretara, ezjakintasun ausartzaz gain, bere burua uskeraren etsaien ezartzea salatu behar da. «Estilo vasco» delakoa, batera, eskaldun chauvinisten aitzakia eta eraldun etsaen barma izan daiteke, berez ipuin bat besterik ez izaki...

Ene doinua garratza da. Ba dakit. Gozoa ahal da, ordea, Pelay Orozo-ren hizkerak? «Algunos escritores vienen insistiendo en que no cabe hallar estilo vasco sino en las producciones estrictamente euskéricas. Esto revela, a mi juicio, una buena dosis de beatería y de incomprensión». Pelay Orozo erme eta garratza da bere iriztarian; ez-jakinak egon ohi diren moduan ordea.

Eman dezagun, ordea, gaztelera idaztea Euskal Literatura egitea dela (Baiona-ko eskaldunek ez luteke hain errazki sinetsiko). Eta nik hau erantzuten dut: eskuzker idaztea Gaztelarazko Literatura egitea ahal da?

Eta beste galdera bat eraindik: eta frantsesek egiten den literatura, zer? Pelay Orozo eta Baroja Euskal Literatura idazle badira, Michel d'Arcangues eta Marc Lé-gasse ere bai. Gaia eta hizkuntza, nahia eta izana, eta abar, ez berdetekotan, eskalduntasuna zer den ez dakigu; edo ba dakigu, egia esan: ezzer ez da.

Baina goazen aurrerago. Udana honetan Jon Bilbao Ustaritzko «Landagoien» delakara ekarritako amerikar gazte-taldea ezagutu dut. Galdera ez diot orainagan Pelay Orozori egingo, ezagutu ote zitzen ez dakilako; Oñafibia haren erakaste izandakoari baizik; uste du zu, Oñafibia jauna, zinez eta seriotan, eskaldun talde gisa sozietologiar bati ez gure herriari talde hura proposa dakiokean? Uste duzu, benetan, baten edo besteren nahikundeari ez, baina taldearen osotasunari eta izanari begiriturik, talde hura eskaldun talde bat zenik? Uste duzu, azkenik, gazte haietako batek, Ameriketara ondoren, ingeles liburu bat idatz behar leza Euskal Herriaz, Euskal Herriaren alde ere nahi baduzu, liburu hori seriotan euskal literaturatzat har litekeanik? Ingelseko ekarria arrotz zaiqu arras; eta gaztelera-ko ez. Nik erantzun gabe ere irakurleak berak aurki dezake karkoa.

Eskuzkeren batasunak dion guzia, fantsagabekeria eta arinkeria hutsa iruditzen zait. Horrelakorik esateko benetan behar da ausardiarik! Eta, denez gain, Mitxelena, San Martín, Irigarai, Aresti, Kintana, Iñon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, eta abar, maisa ahal izateko, berek hainbatu jakin behar da aurrenik, eta segidan, gutxienez bi lerro ertdi baino gehixeago idatzi behar da eskuzkeraz

Farragarri iruditut zait ere beste orrialde batean irakurri dudun hau: «Otra manifestación chocante que se está produciendo actualmente consiste en que la información que recibimos en Guipúzcoa del movimiento literario bilbaíno nos llega "via Madrid"». Eta Pelay Orozo harritu egiten da, xeheki lerro beretan esaten duenez, Zuzunegui, Arellano, Otero, Castresana, Menchaca, Vega, eta abarren izakibruak, «via Madrid» ohi datozelako. Ni, ordea, horrelakorik Leitzetik, Hazparnetetik eta Donostiatik etortzeko harrituko ninduke!

«Ya se ha dicho que una de las características del vasco es la de buscar instintivamente la dificultad donde quiera que se encuentre. Los caminos fáciles y sin riesgos rara vez despiertan pasión», dio Pelay Orozo-k Nik ez dut inolaz ere sinesten horrelako euskal «ezagugarrikerik» dagoenik. Hori frantsese huts bat iruditzen zait. Baina frase horrek berak, nik ezzer erantzul beharrik gabe, kondentzen du Pelay Orozo jauna; eskuzkerari etsi beharreen erderaren alde eta erdera «batuaz» (erdera guziak dira «batuak», kasu) idaztea ez baita «zaila», ez oso eta ez erdizka ere.

Bego beraz horrenbestean. LARRRESORO

ARAGI ERREAK

EGOKI

- Txekor txuletak
- Idi txuletak
- Saietsak
- Arkume ta abar

San Ignazio, 15
Urrut.: 89 14 37
BEASAIN

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurrik (deskuentoa)
Avda de Francia, 1
I R U N

1.896 1.969

GIPUZKOA-KO PROBINTZI ERATETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru barretan gure **PRESTAMEN SERBITZARITZA** (Servicio de Préstamos) baliu zaiten

Zure Arrantz-Ontzia arrotzeko edo oheretako
Zure baserria arrotzeko edo oheretako
Aberria —axandua— arrotzeko edo oheretako
Barrutako fruitak oheretako
Jakinduz jauri zaitzen Donostiako gure
13 ofiziotan eta Probintziako 63 zuzendaritan